B GALDE-SORTA | HIZKUNTZA PROIEKTUA EGITEKO ZERGATIEZ

Galdetegi honek gogoeta bultzatu nahi du Hizkuntza Proiektua egiteko zergatiez. Irakasleei eskatzen zaie euren adostasun maila baieztapen batzuen inguruan.

Ados zaude azpiko baieztapenekin?

Irakurri baieztapenak eta 1etik 10era puntuatu [1: guztiz kontra ; 10: guztiz ados].

Zergatik eta zertarako Hizkuntza Proiektua?	**1-10**
1. Hizkuntza komunikaziorako eta bizikidetzarako tresna da.	
2. Azken urteotan, asko aldatu dira ikasleen eta familien ezaugarriak.	
3. Ikasleen aniztasunak ikasteko eta irakasteko estrategia berriak bilatzea eskatzen du.	
4. Ikasle etorri berrien harrera ikastetxe osoaren zeregina da; hizkuntza-alderdiak eta hizkuntzari lotuta ez daudenak ere kontuan hartu behar dira.	
5. Teknologia berriek irakaskuntzarako bide berriak ematen dituzte.	
6. Hizkuntzen ikas-irakaskuntza arlo guztietan garatzen da.	
7. Ikastetxeak prestakuntza plana antolatu behar du hizkuntzei eta hizkuntzen didaktikari lotua.	
8. Ikastetxe gisa, hizkuntzei lotutako erabaki bateratuak hartzea denon egitekoa da, ikastetxearen planteamendu koherentea gara dezagun.	